

## INAUTERIAK 2022

Familia horiek:

**Inauteriak** ate joka ditugu. Oraingoan ere egoerara egokitu beharrez gaudenez, era berezian burutuko dugu jai giroko egun hau. Dakizuenez, **otsailaren 25ean** ospatuko dira eta jardunaldi trinkoa izango dugu. Ikasleak etxetik mozorrotuta etorriko dira. Etxean daukagunarekin edo norbaitek utzitakoarekin bidea erraztuz mozorroak libreak izango dira.

-Etxera bazkaltzera doazenak irtengo dira: 13:10/ 13:15/ 13:20

-Jantokian gelditzen direnak irtengo dira: 14:55/ 15:00/ 15:05

Lehen Hezkuntzari dagokionez, hiru emanaldi eskainiko dira Kultur Etxean 1.mailatik 6.mailara bitarteko taldeen parte hartzearekin. Saio guztiak grabatuko dira, ondoren beste ikasleek ere ikusteko aukera izan dezaten.

Haur Hezkuntzari dagokionez, haien eraikuntzan jai-giroan pasatuko dute goiza. Betiko moduan eskolako web orrian izango dituzue bideo eta argazkiak emanaldiez gozatzeko.

**Gogoratu astelehena eta asteartea (otsailak 28 eta martxoak 1) jai egunak direla.**

Egoera honi laster buelta emango diogulakoan, ahalik eta ondoen pasa eguna!!